

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Sanz Lehendakariak eta Aguilar ministroak Nafarroako Ubidearen eta inguru ureztagarriaren lehenengo fasea inauguratu dituzte

Proiektu horren bidez, 22.336 hektarea lur ureztatu bihurtu dira, horietatik %60 funtzionatzen ari dira eta 35 labore ekoizten dituzte

Martes, 22 de marzo de 2011

Miguel Sanz Sesma Nafarroako Lehendakariak eta Rosa Aguilar Rivero Ingurumen eta Landa eta Itsas Inguruko ministroak Nafarroako Ubidearen eta inguru ureztagarriaren lehenengo fasea inauguratu dituzte gaur goizean Pitillasen. Inguru horrek 22.300 hektarea baino gehiago hartzen ditu eta horietatik 14.000 (ia %60) honezkero ureztatu egiten dira eta 35 labore ekoizten dituzte, eta kasuen %17an uzta bikoitzak.



Nafarroako Ubidearen lehenengo fasearen inaugurazioa. Ezkerretik eskuinera: Sanzberro kontseilaria, Sanz Lehendakaria eta Aguilar ministroa.

Ekitaldi instituzionalean Amador Jiménez Herrero Pitillaseko alkateak eta Félix Chueca Guindulain Nafarroako Ubideko Ureztatzaileen Komunitateko lehendakariak ere hitz egin dute. Gonbidatu moduan, ekitaldian parte hartu dute Begoña Sanzberro Iturriria, Álvaro Miranda Simavilla eta Laura Alba Cuadrado Nafarroako Gobernuako kontseilariak, Elma Sáiz Gobernuak Nafarroan duen ordezkariak, Rafael Romeo García Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren lehendakariak, Foru Administrazioeko funtzionarioek, Parlamentuko ordezkariak eta inguruko nekazariak.

Ekitaldi instituzionalaren ostean, agintariak ubidea arautzen duen zentralera joan dira, eta bertan 7B, 8, 09, 10.a eta 10B1 tarteak ireki dira, Ubidearen 1. faseko azkenak. Inbertsio osoa 477 milioi eurokoa izan da. Lanak Sociedad Estatal Canal de Navarra enpresak gauzatu ditu. Enpresa horretan Gobernu Zentralak (%60) eta Nafarroako Gobernuak (%40) partaidetza dute.

Lehenengo fase honetan Ubideko 98 kilometro eta Itoizko urtegiaren oinean kokatutako zentral hidroelektrikoa ireki dira.

Nafarroako Ubidea 180 kilometroko proiektua da eta bi fasetan egingo da. Proiektua amaituta dagoenean, 53.125 hektarea ureztatuko dira guztira eta Iruñerriko industriak eta etxeak hornituko dira, Nafarroako herritarren %70 bertan bizi baita.

Lehenengo fasean 120 milioi eurotik gorako ekoizpen gordina sortuko da eta zuzeneko eta zeharkako 2.200 lanpostu sortuko dira, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren kalkuluen arabera.



Nafarroako Ubidearen lehenengo fasearen inaugurazioa. Aguilar ministroaren hitzaldia. Ezkerretik eskuinera: Jiménez alkatea, Sanz Lehendakaria eta Félix Chueca.

Galería de fotos



Nafarroako Ubidearen lehenengo fasea. Ezkerretik eskuinera: Sanzberro kontseilaria, Sanz Lehendakaria eta Sáiz Gobernuaren ordezkaria.



Nafarroako Ubidearen lehenengo fasea, Pitillasen.